

Jose Mari Larretxea deportatua hil da

Kubako ospitale batean minbizia kausa

Jose Mari Larretxea euskal deportatua ostegun gauean hil zen Kuban, aspalditik zuen minbiziaren ondorioz. 53 urte betetzear zituen errefuxiatuak 1974an Iparraldera aldegin zuen, eta bertan bahiketa saioa jasan ondoren Kubara deportatu zuten.

Erredakzioa / Donostia

HABANAKO ospitale batean hil zen Jose Mari Larretxea ostegunean, Kuban 15.40ak zirenean —hemen 21.40ak—. Larretxeak aspalditik zuen minbizia eta gaitzaren aurkako tratamendua jasotzen zuen. Duela 20 egun bere egoera nabarmen txartu zen; ondoren, ordea, berriro ere hobera egin zuen eta etxera joateko aukera ere izan zuen, oso ahul bazegoen ere. Duela bost egun bere egoerak berriro txarrera egin zuen eta ospitalera eraman behar izan zuten. Eta medikuek ez dute bera salbatzeko aukerarik izan. Hil zenean, Kubara joandako bere hiru anaia zituen alboan.

Kuban deportatuta dauden beste euskaldunek Larretxearen militantzia historiko luzea izan zuten gogoan. Bere kideek adierazi zuten, gainera, Larretxeak «militante bezala, azken unera arte duintasun osoa gorde zuen, eta euskal errefuxiatu politiko gisa zuen eginkizuna argi zuen». 1974an Hegoaldetik Iparraldera ihes egin behar izan zuen Larretxeak, Espainiako Poliziak harrapa ez zezan. 1984an Iparraldetik Panamara deportatu zuten, beste zenbait etakiderekina batera. Urte bereko maiatzaren lehen eraman zuten Kubara.

Larretxeari omenaldiak • Larretxearen heriotzaren berri jakin bezain laster, errefuxiatuari omenaldia antolatzeko prestaketak hasi ziren; atzo bertan lehen omenaldia eskaini zitzaion Hernanin, bere jaioterrian.

Larretxea bahitzeko saioa

1983-KO urriaren 18an, Hendai bizi zela, bahiketa saio bat jasan zuen Larretxeak. Bahiketa saio horretan lau polizia espainiarrek, hiru GEOk eta Poliziako inspektore batek, hartu zuten parte, eta une hartan bahiketaren lekutik pasatzen ari zen polizia frantziar batek eragotzi zuen saioa. Polizia frantsesak atxilotu egin zituen lau polizia espainiarrak, eta atxilotetaren ondoren Paueko presondegiari eduki zituzten hilabete eta erdiz. Epaiketara aurkeztuko ziren hitza eman zuten behin-behineko askatasuna eman aurretik, baina errebelian epaitu behar izan zituzten 1986ko ekainaren 12an, epaiketara aurkeztu ez zirelako.

Jose Barrionuevok, Espainiako Barne ministro ohiak, bere gain hartu zuen Larretxearen bahiketa saioaren ardura politikoa. Hala adierazi zuen 1995eko abendua-

Omenaldi nagusia, berriz, Larretxearen gorpua Euskal Herrira iritsitakoan egingo da.

Larretxearen heriotzaren berri izan eta berehala, hainbat taldek Larretxea sendiarekiko elkartasuna eta dolua azaldu zuten. HBk Larretxearen sendiari eta kideei dolua azaldu ondoren, Larretxea zena goraiatu zuen. «Bere militantzia independentista eredu da, eta herri honen borroka eta tinkotasunaren ikur».

Senideak elkarteak ere Larretxearen sendiari elkartasuna adierazi ostean, deportatuek bizi duten egoera larria gogoratu zuten. «Askotan ez gara ohartzen deportazioaren konplexutasun eta krudeltasunaz. Milaka kilometrorra egotea, egonkortasunik eza, agiririk ez izatea, osasun arazoak, lan arazoak, Madrildik bultzatutako eraso eta txantajeen mehatxuak eta abar» aipatu zituen Senideak elkarteak.


Senideak elkarteak eta Hernaniko AABek Larretxearen heriotza dela-eta mozioa aurkeztu zuten Hernaniko Udalean. Bertan, zera eskatzen zuten: Larretxeak Euskal Herriaren alde emandakoa onartzea, senideei eta lagunei dolua azaltzea, jasan zuen bahiketa saioa gaitzestea, deportazio politika salatzea, gorpua ekartzeko bitartekoak jartzea, Kubako herriari eskerrak ematea eta jendeari omenaldietan parte hartzeko deia egitea.

LAB sindikatuak eta Eusko Abertzale Ekintzak ere dolua agertu diote sendiari, eta bere omenezko ekintzetan parte hartzeko deia egin dute.

ren 13an Espainiako Auzitegi Gorenean egindako deklarazioan: «Larretxearena ez zen bahiketa saioa izan, atxiloteta izan zen, polizia espainiarrek Espainiatik kanpo, geroago Roldanekin egin zen bezala, egindako atxiloteta zen hura».


Bahiketa saioa izan zen garai hartan, ETAp VIII.ak Martin Barrios Espainiako Lur Armadako Farmazia kapitana bahituta zeukan eta, hainbat komunikabidetan argitaratu zenez, lau polizia espainiarren asmoa Larretxea etakidea Barrios militarrekin trukatzeko zen. Larretxearen bahiketa saioa gertatu baino bi egun lehenago Lasa eta Zabala bahitu zituzten Baionan.

Entzutegi Nazionalak 1990eko otsailean Larretxearen bahiketaren inguruko kasua artxibatzea erabaki zuen. Horretarako, fiskalak salaketarik ez zuela ezarri argudiatu zuen. X



Jose Mari Larretxeak 12 urte zeramatzen Euskal Herritik kanpora.

HORRELAKO SALOIAK IRAGARKIETAN BAKARRIK IKUSTEN DIRELA USTE BADUZU



ZATOZ INCHAUSTI MOBILIARIO-RA

HORRELAKO HOGEI DITUGU ETA GUZTIAK DESBERDINAK

Altzari enpresa gehienek honen antzeko iragarki batean baino ezin diezazukete erakutsi saloi baten dekorazioa. INCHAUSTI MOBILIARIO, berriz, erakusketarako 5000 m²-tik gora baititugu, zuzenean banan-banan

ikusteko parada duzu. Aukeran hogeitaz desberdin ditugu, estilo eta prezio guztietakoak. Saloi bat erosteko orduan, ez hartu kontuan iragarki bakarririk eta zatoz INCHAUSTI MOBILIARIOra. Hemen, zure bost sentimenekin hauteman ahal izango dituzu ezain paperekin ezin azal ditzakeen xehetasun garrantzitsu horiek.

EROSKETAGATIK BOL-BESAILKI BAT OPARITUKO DIZUGU

FINANZAKETA 24 HILABETE



INCHAUSTI

Gipuzkoako Altzari aukera zabalena eta eguneratuena

EN-1, Errekalde auzoa, 20009 DONOSTIA (Gipuzkoa)
P.K.: 10 - Tfnoa.: 36 42 40* - Faxa: 36 59 05

Ternuako Arrantzaleak, 2 - 20014 DONOSTIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 46 46 66 - Faxa: 47 37 25